



**6. ildo: ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK
EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK**

1. NORENTZAT IZANGO DIRA DIRULAGUNTZAK

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak.
- Herriko elkarteak.
- Publizitatearen gaineko udal zerga kobratzeko Zerga Ordenantza aplikatzen zaien bestelako erakundeak, ofizialak ez direnak.
- Orokorrean, establezimendua, egoitza edo denda kalean duten eta hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten saltokiak, bulegoak eta bestelakoak, adibidez, lanbide liberalak, autonomoak. Kanpo geratzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkaritza-bulegoak eta antzekoak.

2. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

Dirulaguntza honako elementu hauek jaso ahalko dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.
- Establezimenduetako pertsianen errotulazioa.
- Biniloak.

3. ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK

A) Euskara hutsean	Euskara hutsez idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %50 ordainduko zaio, gehienez, 360 euro.
B) Ele bietan	Ele bietan , idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %30, gehienez 180 euro ordainduko zaio, beti eta elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu.

4. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- 4.1. A) eta B) arauak kartel edo **elementu bakoitzari** aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.
- 4.2. **Ezin izango** dute A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, **bakarrik izena, edo abizena**, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.
- 4.3. **Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita** edo oker gramatikalik duen errotulurik (honelakoak gerta ez daitezten irakurri ondoren datorren 4. puntua).
- 4.4.- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, **itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan**; eta horren berri emango die interesa dutenei.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

5.1.- Dirulaguntza eskaera <i>Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua</i> izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodeari dagozkion 24 digitu) jasota utziz. .
5.2.- Faktura originala Errotulua, olana, ibilgailu komertziala... euskaraz jarri dela ziurtatzeko fakturek 2020 edo 2021eko data beharko dute izan.
5.3.- Argazkiak Aldatutako errotulu edo elementuaren bi argazki .
4.5.-Zerga betebeharrak egunean izatea Eskatzaileak ziurtatu behar du zerga betebeharrak ondorengo erakundeekin egunean dituela:

4.5.1.-Ogasunarekin

Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen **Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko du** eskatzaileak. Ziurtagiri hau, dirulaguntza eskaeran **AITORTZEN DUT atala beteta ordezkatu ahal** izango du.

4.5.2.- Gizarte Segurantzarekin

Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu, dirulaguntza eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik baduen ikusteko, **baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada**; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

4.5.3.- Getxoko Udalarekin

Getxoko Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. **Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio.** Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko dirulaguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio dirulaguntza, ez duelako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.